

### PEGASO KAMIOIAK NEURRIRA

"Pegaso Select" sistema informatikoaren bidez, bezero bakoitzaren beharrei egokitzen zaien kamioia diseina daiteke. Aukeraketan, eragiketaren aldagai posible guztiak kontutan hartzen dira, hala nola, ibilgailu-mota posibleak ibilgailuaren kostua, zerbitzua eta finantzaketa-mota.

Sistema informatiko berak, datu teknikoei buruz informazioa ere ematen du. Adibidez, maniobragarritasuna eta pisuen banaketa.




### MAC ATLAS: KARTOGRAFIA LANTZEKO PROGRAMA

Programa hau Macintosh zein IBM-PC bateragarritan erabil daiteke; horretarako bertsio desberdinak bait daude.

Programa hauen bidez nahi den lekuko mapa osa daiteke eta bertan nahi den testua sar daiteke. Trama-mota desberdinak onartzen ditu estatu desberdinak bereizteko eta eskala ere aukeragarri da.

Estatu Batuetan salgai dago eta prezioa 105\$ekoa da.

### EPSON GT-1000 IRAKURGAILU OPTIKOA



Epson-ek koloretako scannerra aurkeztu berri du. Irakur dezakeen azalera DIN A-7ari dagokiona da. Hazbeteko 200 puntuko bereizmena du eta 256 kolore-

maila. Zoom-a %50etik %200eraino programa daiteke.

Autoedizio-pakete nagusienak onartzen ditu: Ventura Publisher, GEM, PC Paint, Dr. Halo, Tiff Mono, Tiff Mono Compressed, Windows Paint eta Page Maker.

### MUSIKA JOTZEN DUEN ROBOTA

Kanadan ospatu den Energiari buruzko Nazioarteko Batzarrean, partehartzaileek Chopin-en musika entzuteko aukera izan zuten. Harrigarria badirudi ere, pianojolea ez zen hezur eta haragizkoa; burdinazkoa baizik. Robotaren izena IRB-2000 zen eta bere ohizko lanetatik atera ondoren musika jotzeko programatu zuten.

Agian, han entzundako musikari berotasuna faltatuko zitzaion, baina nota guztiak ezin hobeto jo zirela ez dago ukatzerik. Bestela errua ez litzateke inola ere robotarena izango; programatzailearena baizik.

### DISKO-KAPAZITATE HANDIAGOAZALERA TXIKIAGOAN

IBMko injineruek 1000 MB-eko kapazitatea lortu dute 6,45 cm<sup>2</sup>-ko azalera duen disketean. Errekor berri hau aurrekoa baino 30 aldiz handiagoa da. Disko berriak aluminiozkoak dira, baina kobaltzoko gainazala dute. Buru irakurleak ere kobaltzoko gainazala du. Gainera buru hauek ohizkoek baino higadura txikiagoa sortzen dute.

Disko hauen produkzioari ez zaio oraindik hasiera emango. Beraz urte batzuek igaro beharko dute produktu berri hau kalean ikusi arte.

---

## ACCELL-500 INPRIMAGAILUA

---

Inprimagailu honen ezaugarri bereziena zazpi emulazio desberdin egitea da. Eta, nahi izanez gero, DEC LQ/LA, IMAGEWRITER II/LQ edo PLOTTER HPGL emula daitezke.


Abiadura segundoko 480 karakterekoa da eta koloretan inprima dezake.

---

## MEMORIA HANDIAGOTZEA GERO ETA MERKEAGO

---

Programa ahaltsuek RAM memoria handia eskatzen dute. Gure PC-XT eta Macintosh-ek 256 Kb-etik 1024 Kb-erainoko RAM memoria izaten dute. Orain dela gutxi arte, Macintosh-en alorrean behintzat, RAM memoria handiagotzeko plakak aurkitzea zail samarra edo garestia izaten zen. Baina azkeneko sei hilabeteotan izugarri aldatu da egoera. Prezioek beherantz egin dute oso. Datu bat eman dezakegu: 1989ko azaroan erositako 2 Mb-eko plaken kostua 65.000 pta-koa bazen, 1990.eko martxoan 20.000 pta-koa da (Macintosh Plus eta SE-rentzat)



---

## MINISPORT, ZENITH-EN PRODUKTU BERRIA

---

3 cm baino altuera txikiagoa duen ordenadore honek ordenadore eramangarrien mundua iraul dezake.

Ezaugarri nagusienetakoen artean DayBright motako pantaila edukitzea da. Pantaila-mota honi esker, edozein argitasun dagoelarik ere, irakur daiteke.

Bi bertsio daude. Batek 1 MB-eko RAM memoria duen bitartean, besteak 2 MB-eko RAM memoria du.

